



HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

Data: 2025-04-09 **Bilera zenbakia:**42

Bilera ordua eta lekua: 18:00

Parte-hartzaileak: Rosario eta Mari (Bizi Nahi), Asier (Arbelaitz), Monica eta Laura (GE), Nagore eta Iker (zinegotziak), Nerea (udala)

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azken batzordea lanak.

- ✓ Txoko garbiketa gogoratu
- ✓ Egutegiko gaia iragarri: Elkartetan gogorarazi kideei argazki gaia Urtaroak Itsasondon izan dela eta azaro bitarte dagoela argazkiak ateratzeko aukera.
- ✓ Mus finalerako boluntarioak

2. Ekintzen balorazio laburra

21: Sorkuntza tailerra: Bihondakinen tailerra: 8 lagunek parte hartu zuten, tailer interesgarria izan zen bigarren saioa egiteko data adostu zuten maiatzaren 9an, izen ematea berriz zabalduko dugu.

22: Gipuzkoako mus finala: Oso gustura gelditu ziren antolatzaileak, aukera azaldu dute hurrengo urtean finala hemen izatea.

27: Maskulinitate berriak: Bigarren saioa izan zen eta oso gustura daude partaideak.

~~28: Sorkuntza tailerra: Bihondakinen tailerra~~

Apirila

2: Maite Franko ipuin kontaketa: Saio honetan aurrekoetan baina askoz gusturago egon omen da Maite, antolaketa dela eta.

3-10: Kirol astea

3: "Baltoro oinez eta hegan" hitzaldi ikusentzentzunezkoa.: 5 lagun bakarrik egon ziren saioan, baloratu beharko da merezi duen aste honen antolaketarekin jarraitzea.

5: Emakumeen collagea. 10 bat emakume elkartu ziren (belaunaldi ezberdinak) eta oso giro politean egon ziren.

3. Hurrengo ekintzak herrian

Apirila

3-10: Kirol astea

11: Kirol Egokitu saioa (EK topaketa)

12: Mendi irteera (guraso elkarta EK topaketa)

23: Ginkana herritik

25: Egurre eskalada irteera

Maiatza

3-5: Urkiko festak

7: Euskaraldia batzordea

8: UEMAko euskara saioa (galdetegiaren erantzunen arabera)

9: Euskaraldia txapa banaketa

9: Bihondakinen tailerra

14: Grafitti tailerra

17-18: Urkiko asteburua

15-25: *Euskaraldia*

15: Euskaraldia, hasierako ekitaldia.

16: Tio Teronen semeak "Haurreskolari" emanaldia

16: Ekoizle azoka eta arropa azoka (ongizate)

21: "Hetero", Uxue Alberdi+ Maialen Akizu

22: Maskulinitate berriak

23: Kontzertuak gaztetxean

Ekaina:

6: Bertso saioa

18: Harrera eguna

19: Maskulinitate berriak

~~20: Eskolako jaia, "Arlote bat"~~ Ekain pailazoan jakinarazi digu jada Gure Zirkuarekin egongo dela bira egiten eta hortaz ezingo duela emanaldia eskaini.

20: Garagardo azoka: Alarma morea

23: San Juanak

23: Udalekuak hasi

4. Elkartetatik datozenak.

Elkartetan batzordeko informazioa helarazteko beharra azpimarratu da eta elkartetatik ere ekarpenak egiteko beharra.

Jubilatuak aipatu dute sagardotegira doazela, hasiera batean autobusa ahrtu behar zutela baina asko ez zirenez izango ez zutela erreserba egin. 32 lagunek eman dute izena eta trenean joatekoak dira. Bada ez bada ere Legorretako premium taxien telefonoa pasa zaie, mugikortasun arazoren bat dutenentzako.

1. Udaletik datozenak.

- Euskararen egoera, galdetegia: Online, Kaxintane eta Ibarlurren dago aukera betetzeko. Elkarrekin jartzeko ere kopia batzuk banatu dira, ostiralean amaitzen da epea betetzeko.
- Euskaraldia: Bigarren batzordea egin zen. Aparteko ekintzarik ez egitea aurreikusi zen. Maiatzaren 15ean hasiera ekitaldia egingo da.

- Eskola inguruko urbanizazio lanak egiteko enpresa bat aurkeztu dela, beraz, espero dela berandu baino lehen lanak hastea.
- Laster jarriko direla dendako takillak erabiltzeko moduan. Orain, bideo bat egiten ari direla takillak nola erabili azaltzen duena. Webgunea ere prestatzen ari direla, erosketak online egiteko.
- Euskal Herriko Mus Federazioak kartak eta tapeteak oparitu zizkigun, guraso elkarteak 2 hartuko ditu, Arbelaitzek 4 eta Bizi Nahi elkarteak beste 4.
- Udalekuak: Ekainaren 23tik- uztailaren 18ra egingo dira.
- WEB orriko pantaila atala erabiltzen den edo ez baloratu behar dugu, lana ematen du kudeatzeak eta ez bada erabiltzen ez du merezi.
- Gaztelekuko egoera: Egoeraren berri eman da. Momentuz erabaki da ontziak eta edalontziak jasotzea eta behar badituzte eskaera egitea.
- Txoko inbentario/ txukunketa egin zen eta txukun bildu da materiala.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Egutegiko gaia iragarri; Itsasondo eta urtaroak</i>	<i>Denok</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>Ekintzen berri eman; Agendako datak.</i>	<i>Denok</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>Euskararen egoeraren galdetegia banatu</i>	<i>Denok</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>Jaietarako proposamenak ekarri hurrengo batzordera.</i>	<i>Denok</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>WEB orrian pantailetan atala begiratzen den galdetu</i>	<i>Denok</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>Tapeteak eta kartak banatu</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: JAI BATZORDEA maiatzak 7		

Hurrengoak : Maiatzak 7, Ekainak 11; 18:00